**4. artikulua.- Sortzapena**

"Artelanak garbitzeko ur materialak eta metodoak" izeneko ikastaroan izena emateko eskatzerakoan sortuko da prezioa.

**5. artikulua.- Ordaintzeko era**

Ordainketa aurretiko izen ematea baieztatu eta dagokion ordain gutuna eman ondoren egingo da. Ordain gutun hori dirubilketan laguntzen duten finantza erakundeetan ordainduko da, edo bestela Euskal Administrazioaren ordainketa pasabidearen bidez (www.euskadi.net/mipago).

**6. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa**

Prezio publiko hauen kudeaketa eta administrazioa Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailak bideratuko ditu.

**7. artikulua.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea**

Gasteiz, 2011ko otsailaren 22a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.– Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, ROMÁN VALENTÍN BERRIOZABAL AZPITARTE.

**Artículo 4.- Devengo**

El precio se devengará en el momento de solicitar la inscripción en el curso de "Materiales y métodos acuosos para la limpieza de obras de arte".

**Artículo 5.- Forma de pago**

El pago se realizará una vez confirmada la pre-inscripción y tras la emisión de la oportuna carta de pago, que será abonada a través de las Entidades Colaboradoras en la recaudación, o bien a través de la Pasarela de Pagos de la Administración Vasca www.euskadi.net/mipago.

**Artículo 6.- Gestión y Administración**

La gestión y administración de estos precios públicos corresponde a la Excma. Diputación Foral de Álava, que la llevará a través del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.

**Artículo 7.- Publicar la presente resolución en el BOTHA**

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2011.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputada de Euskera, Cultura y Deportes, MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.– Director de Euskera, Cultura y Deportes, ROMÁN VALENTÍN BERRIOZABAL AZPITARTE.

*Foru Aginduak*

## GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**1244**

**Otsailaren 25eko, 19/2011 FORU AGINDUA, Desgaitasuna egiaztatzen duen txartelaren sorrerarena.**

Desgaitasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko jardunbidea arautzen du abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak.

Bertan, aplikatu beharreko baremoak ezartzen dira eta aipaturiko onarpena egiteko eskumena duten organoak zehazten dira, ezintasun mailaren balioespena eta kalifikazioa Espainiako lurralde osorako berdinak izateko moduan, horrela erakunde publikoek ezartzen dituzten onura, eskubide ekomoniko eta zerbitzuak eskuratzeko herritarrek baldintza berdinak izatea bermatuz.

Prozesu horretatik dator ezintasun maila onartzeko ebazpena. Ebazpen hau, ezinbestean aurkeztu behar den agiri batean gauzatzen da, estatua, autonomia, foru edo toki arautegiak xedatzen dituen onuretako edozein eskuratu nahi baldin bada.

Orain arte, agiri hori bakar-bakarrik paperez egin da, horrek berekin dakartzan eragozpenekin. Teknologia berriek formatu digitaleko txartel egiaztagarri bat diseinatzea ahalbidetzen digute. Horrekin, hauxe lortu nahi da: legez aitortutako desgaitasuna duten pertsonek beren desgaitasuna era bizkor eta praktikoan egiaztatu ahal izatea, haren erabilera titularrari askoz ere erosoago eginez.

Foru agindu honekin, desgaitasuna duen pertsonaren izaera egiaztatzen duen txartela sortzen da. Horrek ez du ordezten ezintasun mailaren paperezko ziurtagiria, agiri hau baita pertsona bat ezindua dela ofizialki egiaztatzen duena. Hau da, txartela eskuratzeko, ziurtagiria lortu behar da aldez aurretik.

Horregatik guztiagatik,

XEDATU DUT

**1. artikulua.- Xedea**

Agindu honen xedea da desgaitasuna egiaztatzen duen txartel bat sortzea, bere I. Eranskinean ageri diren ezaugarrien eta ereduaren arabera.

**2. artikulua.- Helburua**

Desgaitasuna egiaztatzen duen txartelaren helburua titularrak desgaitasuna duelako lekukotasun fidagarria ematea da, organo eskudunak ezintasun mailaren inguruan hartutako ebazpenaren kalterik gabe.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

**1244**

**ORDEN FORAL 19/2011, de 25 de febrero, de creación de la Tarjeta Acreditativa de Grado de Discapacidad.**

El Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, regula el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad.

En el mismo se establecen los baremos aplicables y se determinan los órganos competentes para realizar dicho reconocimiento, de modo que la valoración y calificación del grado de discapacidad sea la misma para todo el territorio del estado, garantizando así, la igualdad de condiciones para el acceso de los ciudadanos y de las ciudadanas a los beneficios, derechos económicos y servicios que los organismos públicos estipulen.

De este proceso se deriva la resolución del reconocimiento del grado de discapacidad, que se concreta en un documento que es imprescindible presentar si se quiere obtener cualquiera de los beneficios que la normativa estatal, autonómica, foral o local disponga.

Hasta el momento este documento se ha emitido únicamente en papel con los inconvenientes que conlleva. Las nuevas tecnologías nos permiten el diseño de una tarjeta acreditativa en formato digital. Con ello se pretende que las personas con una discapacidad legalmente reconocida puedan acreditar de forma ágil y práctica su discapacidad, haciendo mucho más cómodo el uso de la misma a su titular.

Con esta orden foral se crea la tarjeta acreditativa de la condición de persona con discapacidad, la cual no sustituye al certificado de grado de discapacidad en papel, ya que es este documento el que acredita oficialmente que una persona está discapacitada. Es decir, que para obtener la tarjeta, la persona ha de haber obtenido previamente el certificado.

En virtud de todo ello,

DISPONGO

**Artículo 1.- Objeto**

La presente orden tiene por objeto la creación de una tarjeta acreditativa de la discapacidad, conforme a las características y modelo que figuran en su anexo I.

**Artículo 2.- Finalidad**

La tarjeta acreditativa de la discapacidad tiene por objeto dar testimonio fehaciente de la presencia de discapacidad en la persona titular, sin perjuicio de la resolución expedida por el órgano competente sobre el grado de discapacidad.

**3. artikulua.- Onuradunak**

Arabako Lurralde Historikoan bizi diren eta ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasun maila onartuta daukaten pertsonak, ezintasun maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko jardunbidea arautzen duen 1971/1999 EDan jasotako baremoak aplikatuta eta NANa edo AIZa daukatenak.

**4. artikulua. Txartelaren erabilera baldintzak**

- Ezintasun txartela dokumentu pertsonala eta eskualdatu ezinekoa da, haren titularrari onartutako ezintasun maila kreditatzen diona.

- Beti titularrari dagokion nortasun agiriarekin batera (NANa edo AIZa) erakutsi beharko da. Modu horretan, txartelaren titularrari ezintasun mailaren ziurtagiria edukitzearen ondoriozko eskubideak bermatuko zaizkio.

**5. artikulua.- Txartela jaulkitzeko jardunbidea**

Ezintasun maila egiaztatzen duen txartela ofizioz emango zaie aurretik adierazitako baremoen arabera % 33ko edo gehiagoko ezintasun maila onartuta daukaten pertsona guztiei.

**6. artikulua.- Berriro jaulkitzea ezintasun mailaren aldaketagatik edo erabiltzailearen datu pertsonalen aldaketagatik**

Txartelaren titularrari onartutako ezintasun maila aldatzen denean, administrazioaren edo epaileen ebazpen baten ondorioz, eta onartutako ezintasun maila berria ehuneko 33 baino txikiagoa baldin bada, titularrak txartela 10 eguneko epean bueltatu beharko du, hala eskatzen zaion egunetik aurrera, hura baliogabetzeko.

Administrazioaren edo epaileen ebazpen baten bidez, onartutako ezintasun maila ehuneko 33 baino gehiagora handitzen denean, eguneratutako datuak jasotzen dituen txartel berri bat jaulkiko da, onuradunak aurreko txartela itzultzen duenenan.

Erabiltzaileak bere datu pertsonaletan akatsen bat nabaritzekotan, informazio hori aldatzen duen txartel berri baten jaulkipena eskatu beharko du, II. eranskinean ageri den ereduaren arabera. Txartel berria lortu aurretik, datu okerrak dituen txartela itzuli beharko du.

**7. artikulua.- Txartel bikoiztuaren eskaera**

Galeragatik, ebatsi edo hondatzeagatik, txartel berri bat eskatzen duen onuradunak hura eskatu ahal izango du foru agindu honen II. eranskinean ageri den ereduaren arabera. Halaber, Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen webgunean aurki daiteke: www.alava.net/ifbs. Eskabidea bete eta gero, ondoko bide hauek erabil daitezke bidaltzeko:

- Posta elektronikoaren bidez (izena, deitura, NANa/AIZa eta bizilekua), ondoko helbide honetan:

ifbs.tarjetadiscapacidad@alava.net

- GOFEren Orientazio eta Balorazio Zentrora (Manuel Iradier kalea, 27 behea. Gasteiz), edo GOFEren Informazio eta Gizarte Zerbitzuetako Bulegora (Diputazio kalea, 13. Gasteiz), edo eskatzaileari bizilekuagatik dagokion udalaren oinarrizko gizarte zerbitzura joanda.

- Posta bidez, aurretik adierazitako helbideetara zuzenduta.

Eskabidea txartela ebastearen ondorioa baldin bada, dagokion salaketa erantsita joan beharko da.

**8. artikulua.- Txartela baliogabetzea**

Txartela baliogabetu egingo da aurretik aurreikusi diren kasuetan, baita hartaz iruzurrezko erabilera egin denean ere, aldez aurretik titularrari entzunaldia emanda, eta eskatu daitezkeen erantzukizunen kalterik gabe.

**9. artikulua.- Indarraldia**

Txartel egiaztagarriak zehaztu egingo du ebazpenean adierazten den indarraldia, hau mugagabea izan daitekeelarik, edo balioaldiaren data adieraziz, balioespena behin-behinekoa izanez gero.

**Artículo 3.- Personas beneficiarias**

Las personas residentes en el Territorio Histórico de Álava, que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento, en aplicación de los baremos contenidos en el RD 1971/1999 de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad y que sean poseedoras de D.N.I. o N.I.E.

**Artículo 4.- Condiciones de uso de la tarjeta**

- La tarjeta de discapacidad es un documento personal e intransferible que acredita a la persona titular de la misma el grado de discapacidad reconocido.

- Siempre se presentará acompañada del documento de identidad correspondiente (D.N.I. o N.I.E.), garantizando, de este modo, a la persona titular de la tarjeta, los derechos que se derivan de contar con el certificado de grado de discapacidad.

**Artículo 5.- Procemiento para su expedición**

La tarjeta acreditativa del grado de discapacidad se expedirá de oficio a todas aquellas personas a quienes se les haya sido reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento, según los baremos anteriormente citados.

**Artículo 6.- Reexpedición por modificación del grado de discapacidad o por modificación de los datos personales de la persona usuaria**

Cuando se modifique el grado de discapacidad reconocido a la persona titular de una tarjeta, como consecuencia de resolución administrativa o judicial y que el nuevo grado de discapacidad reconocido resulte inferior al 33 por ciento, la persona titular deberá devolver la tarjeta en el plazo de 10 días desde que se le requiera para su cancelación.

Cuando, por el contrario, por resolución judicial o administrativa, el grado de discapacidad reconocido aumente a uno superior al 33 por ciento, se emitirá una nueva tarjeta en la que figuren los datos actualizados, una vez que la persona beneficiaria devuelva la tarjeta anterior.

En el caso de que la persona usuaria detectase algún error en sus datos personales, deberá solicitar la expedición de una nueva tarjeta que modifique dicha información, según modelo que aparece en el anexo II. Previamente a la obtención de la nueva tarjeta, deberá entregar la que contiene datos erróneos.

**Artículo 7.- Solicitud de duplicado de tarjeta**

La persona beneficiaria que requiera una nueva tarjeta por pérdida, robo o deterioro, podrá solicitarla mediante el modelo que aparece en el anexo II de esta Orden Foral y que se encuentra, así mismo, en la página web del Instituto Foral de Bienestar Social: www.alava.net/ifbs. Una vez cumplimentada la solicitud, puede utilizar para su remisión las siguientes vías:

- Mediante correo electrónico (indicando nombre, apellidos, DNI/NIE y domicilio) en la siguiente dirección:

ifbs.tarjetadiscapacidad@alava.net

- Acudiendo personalmente al Centro de Valoración y Orientación del IFBS (c/Manuel Iradier, 27 bajo. Vitoria-Gasteiz), o a la Oficina de Información y Servicios Sociales del IFBS (c/Diputación 13. Vitoria-Gasteiz) o al Servicio Social de Base del municipio correspondiente al domicilio de la persona solicitante.

- Mediante correo postal, dirigido a las direcciones anteriormente señaladas.

En el caso de que la solicitud sea como consecuencia de robo de tarjeta, habrá de acompañarse de la correspondiente denuncia.

**Artículo 8.- Cancelación de la tarjeta**

Se procederá a la cancelación de la tarjeta en los supuestos previstos anteriormente, así como en el caso de uso fraudulento de la misma, previa audiencia de la persona titular y sin perjuicio de las responsabilidades que pudieran exigirse.

**Artículo 9.- Vigencia**

La tarjeta acreditativa determinará la vigencia que se exprese en la resolución, pudiendo ser indefinida, o con indicación de la fecha de validez en caso de que la valoración sea provisional.

### Lehenengo Xedapen Gehigarria

Foru agindu hau indarrean jartzen den egunean ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasun maila aitortzen duen ebazpen baten titularrei, ofizioz bidaliko zaie dagokien txartela Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizatearen Foru Erakundean beraien espedientean jasotako datuetan ageri den ohiko etxebizitzara, espresuki eskatu beharrik gabe.

### Bigarren Xedapen Gehigarria

Hasierako bidalketaz geroztik ehuneko 33ko edo gehiagoko ezintasun maila aitortzen zaien pertsonek ere beren ohiko bizilekuan jasoko dute txartela, egiten den hurrengo bidalketan.

### Azken xedapena

Foru Agindu honek ALHAOean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 25a.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, Mª COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko zuzendaria, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

### I ERANSKINA

**Desgaitasun maila egiaztatzen duen txartelaren ezaugarriak**

Ezaugarri fisikoak

- Tamaina: luzera 85 mm. Zabalera 54 mm.
- Eredu plastifikatua
- Koloreak: zuria, fuksua eta grisa
- Legenda: Desgaitasunaren egiaztatzea

Jasotzen duen informazioa:

Aurrealdea:

- Titularraren identifikazio datuak: Izena, abizenak, NANa
- D letra, “desgaitasuna” adieraziz, testuan eta braille formatuan.
- Balioaldiaren data, balioespena behin-behinekoa izanez gero.
- GOFEren Orientatzeko eta Balioesteko Zentroan espedientearen kokatze zenbakia
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizatearen Foru Erakundearen logotipoa.

Atzealdea:

- Barra kodea, titularrari loturiko berariazko numerazioarekin
- Txartel pertsonala eta eskualdatu ezinekoa delako eta NAN edo AIZarekin batera joan behar delako adierazpena
- Ezintasun maila, ehunekotan
- Garraio kolektiboak erabiltzeko mugikortasun eragozpenak daudela finkatzeko baremoa (1971/1999 Edaren 3. Eranskina).

### Disposición adicional primera

A las personas titulares de una resolución de reconocimiento de grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento a la fecha de entrada en vigor de la presente Orden Foral, se les remitirá de oficio la correspondiente tarjeta al domicilio de su residencia habitual que figure en los datos obrantes en su expediente en el Instituto Foral de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava, no siendo necesaria la realización de solicitud expresa.

### Disposición adicional segunda

Las personas a las que se les reconozca un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento con posterioridad al envío inicial, recibirán así mismo la tarjeta en su domicilio habitual en el siguiente envío que se efectúe.

### Disposición final

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2011.– Diputada Foral de Política Social y Servicios Sociales, Mª COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Directora de Política Social y Servicios Sociales, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

### ANEXO I

**Características de la tarjeta acreditativa del grado de discapacidad**

Características físicas:

- Tamaño: longitud 85 mm. Anchura 54 mm.
- Modelo plastificado
- Colores: blanco, fucsia y gris
- Leyenda: Acreditación de discapacidad

Información que contiene:

Anverso:

- Datos identificativos de la persona titular: Nombre y apellidos, DNI
- Letra D de discapacidad en texto y en formato braile.
- Fecha de validez, en el caso de que la valoración sea de carácter provisional.
- Nº de ubicación del expediente en el Centro de Valoración y Orientación del IFBS
- Logotipo del Instituto Foral de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava

Reverso:

- Código de barras con numeración específica vinculada a la persona titular
- Indicación de que es una tarjeta personal e intransferible y que ha de ir acompañada de DNI o NIE
- Grado de discapacidad en porcentaje
- Baremo para determinar la existencia de dificultades de movilidad para utilizar transportes colectivos (anexo 3 del RD 1971/1999).






## II. ERANSKINA/ANEXO II

▸ ARABAKO FORU ALDUNDIA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
Instituto Foral De Bienestar Social

▸ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA
www.alava.net/ifbs/

**Desgaitasuna egiaztatzen duen txartela eskatzeko eredua**
**Solicitud de tarjeta acreditativa de la discapacidad**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen
Zuzendaritza-Kudeatzailetzari
A la Dirección Gerencia del
Instituto Foral de Bienestar Social

### I.Eskatzailearen datuak • Datos de la persona solicitante

**Lehenengo deitura** • Primer apellido | **Bigarren deitura** • Segundo apellido | **Izena** • Nombre

**Jaioteguna** • Fecha de nacimiento | **NAN/AIZ/Bestelakoa** • DNI/NIE/Otro | **Nazionalitatea** • Nacionalidad

**Helbidea (kalea/Zk./solairua)** • Domicilio (calle /nº/piso) | **P.-K.** • C.P. | **Herria** • Localidad | **Probintzia** • Provincia

**Telefono finkoa** • Teléfono fijo | **Telefono mugikorra** • Teléfono móvil | **E-maila** • E-mail

### II. Ordezkaritza daukan pertsonaren datuak • Datos de la persona que ostenta la representación

**Lehenengo deitura** • Primer apellido | **Bigarren deitura** • Segundo apellido | **Izena** • Nombre

**Jaioteguna** • Fecha de nacimiento | **NAN/AIZ/Bestelakoa** • DNI/NIE/Otro | **Nazionalitatea** • Nacionalidad

**Helbidea (kalea/Zk./solairua)** • Domicilio (calle /nº/piso) | **P.-K.** • C.P. | **Herria** • Localidad | **Probintzia** • Provincia

**Telefono finkoa** • Teléfono fijo | **Telefono mugikorra** • Teléfono móvil | **E-maila** • E-mail

**Eskatzailearekiko lotura:** • Relación con la persona solicitante:

### III. Eskarearen arrazoia (markatu x batekin dagokion erantzuna) • Motivo de la solicitud (marcar con una x la respuesta que proceda)

☐ **Galera** • Pérdida ☐ **Narriadura** • Deterioro ☐ **Ebastea (erantsi salaketa)** • Robo (adjuntar denuncia)

☐ **Datuen aldaketa (zehaztu)** • Modificación datos (especificar):

☐ **Beste arrazoi batzuk (zehaztu)** • Otras causas (especificar):

### IV. Jakinarazpenetarako helbidea • Domicilio a efectos de notificaciones

**Adierazi zein helbidetara nahi duzun txartela bidaltzea** • Indicar el domicilio al que desea se le envíe la tarjeta

**Aitortzen du** • Declara

Behean izenpetzen duenak espresuki eta bere erantzukizunaren pean adierazten du eskabide honetan ageri diren datuak egiazkoak direla eta eskatzen du eskatzailearen desgaitasun maila egiaztatzen duen txartela jaulki dadila.

La persona abajo firmante hace declaración expresa y responsable de la veracidad de los datos que figuran en la presente solicitud y solicita sea expedida la tarjeta acreditativa de grado de discapacidad a nombre de la persona solicitante.

En ................................(e)n, a ......... (e)ko, de ........................aren, de..............................(e)(a)n.

**Eskatzailearen sinadura** • Firma de la persona solicitante **Legezko ordezkariaren sinadura** • Firma de la persona representante legal

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak aditzera ematen dizu azaldutako datuak informatika bidez landuko direla, eta eskubidea duzula haiek eskuratzeko, zuzentzeko eta deuseztatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

El Instituto Foral de Bienestar Social le informa que los datos aportados serán tratados de forma informatizada, teniendo derecho a su acceso, rectificación y cancelación de conformidad con lo previsto en el Artículo 5 de la Ley Orgánica 15/1.999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.